

## MEMORIA

### PAGOETA GUNE SOZIOKUTURALAREN ERABILERA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA

ARAU ONARTZEKO PROZEDURAREN AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOAREN TRAMITEA.

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikuluan ezarritakoaren arabera, egitasmoak eta aurre-egitasmoak eta araudiak egin aurretik, kontsulta publikoa egin beharra dago, hain zuzen ere etorkizuneko arauak agian eragingo dien pertsonen eta elkarte esanguratsuenen artean iritzia jasotzeko; beraz, hori betetze aldera, aldez aurreko kontsulta egin bedi *Pagoeta gune soziokulturalaren erabilera arautzeko erregelamendua*.

Arauaren aurrekariak	Arau honek ez du aurrekaririk.  Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2 d) artikuluan eta Euskadiko Toki-erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.3) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalek titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatze eta kudeatzeko eskumenak izango dituzte beti.
Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak	Pagoeta gune soziokulturalaren erabilera desegokiak.
Hori onartzeko beharra eta aukera	Instalazioaren erabilera egokia bermatzea.
Arauaren helburuak	Pagoeta gune soziokulturala erabiltzen dituzten Bitartean erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erabileraren baldintzak arautzea.

<p>Aukerako soluzio arautzaile eta ez arautzaile posibleak.</p>	<p>Aukerako soluzioa ordenantzarik ez egitea izango litzateke. Hala ere, instalazioaren erabilera egokia ziurtatzeko erabilera arautu nahi denez, komeni da erregelamendua egitea eta haren aplikazio uniforme eta eraginkorra ziurtatzea.</p>
---	--